

Hutsuneak betetzeko onartu dute Udalaren euskararen erabilera plana

Azpeitia » 2012ra arteko plana da orain onartu dutena; Uemak osatu du, aurrez datu bilketa sakona eginda

NEREA URANGA

Azpeitiko Udalak etxe barruko euskararen erabilera planaren 2010-2012 eperako plangintza onartu du. Udaltzarak maiztaren ohiko udalbatzarrean onartu zuen erabilera plana, aho batez. Azpeitiko Udala Uema Udalerri Euskaldunen Mankomunitateko kide denez, plana neurri handi batean Uemak berak bideratu du. Udalen euskararen normalizaziorako bidean pauso asko emanda badaude ere, dauden hutsuneak betetzea helburu bideratu dute plana.

Epealdi berrirako Udaltzarak euskararen erabilera planari buruz zera adierazi du Ana Mendizabal Euskara batzordeburuak: «Orain indarrean dagoen plana aurreko agintaldian hasitakoaren jarraipena da». Mendizabalek gaineratu du aurreko Udaltzarak agintaldian «urrats handiak» egin zituztela: «Udaletxean ia jarduerak guztia euskaraz egitera iritsi gara. Oraingo planarekin, hutsuneak bete eta jarduerak osoa euskaraz egitea izango da helburua. Espero

dezagun emaitza onak ematea eta eragin biderkatzailea izatea, bai Udaltzarak eta baita kanpora begira ere».

Mendizabalek, udaletxeko langileek planarekiko duten jarrera ona aitortu du: «Haiei esker egin du aurrera planak».

«Errematea falta»

Patxi Saez Euskara Patronatuko zuzendaria ere bat etorri da Euskara batzordeburuarekin. Aurreko agintaldian euskararen erabilerraren gaineko lehen plana garatu zela azaldu du Saez: «Bikain egiaztagiria ere jaso zuen Azpeitiko Udalak, maila gorena lortuz. Orain, lanaren azken pausoak edo errematea ematea falta da». Azpeitiko «ziur aski» euskararen erabilerraren normalizaziorantz urrats gehien egin dituen bere mailako Udala dela nabarmendu du Saez: «Gure asmoa plangintza hau bukatutakoan helburua lortuta izatea da».

Bost hilabetez datuak biltzen

Udal barneko euskararen erabilera plan berria Uemak egin du, aurreko datuak bilduz eta ondoren planifikazioa eginez. Miren Seguro Uemako teknikariak hala azaldu du: «Datuak bildu ondoren, oinarriak eta aurrera begira hartu beharreko neurriak jarri dira». Az-



Patxi Saez Euskara Patronatuko zuzendaria, Ana Mendizabal Euskara zinegotzia eta Miren Seguro Uemako teknikaria plana aurkezten. N. URANGA

peitiko Udalan egiten den euskararen erabilera neurtu du Uemak, bost hilabetez. Seguroaren hitzetan, datu bilketaren emaitzak erakutsi du Azpeitiko Udala «aurretik pauso asko» emandakoa dela.

Orokorrean, datu «onak»

Batetik, hamabi esparrutan banatuta, Udaltzarak langileen eta ordezkari politikoen euskara gaitasuna neurtu du Uemak. Bestetik, hiru eratarik bildu dituzte datuak: langileei dokumentuak eskatuta (600 dokumentu baino gehiago jaso dituzte); langileei galdetegi bat eginda; eta, hizkuntza paisaiaren behaketa eginda. Datu bilketaren emaitzak, orokorrean, «oso onak» izan direla

ondorioztatu du Seguroak. «Baina, normaltasunez euskaraz lan egiteko ezintasuna eragiten duten hainbat elementu ere identifikatu dugu», gehitu du. Besteak beste, honakoak dira elementu horietako batzuk: langileek erabiltzen dituzten aplikazio informatiko guztiak ez daude euskaraz; gaur egun langileek jasotzen duten prestakuntza ia gehiena gaztelaniaz eskaintzen diete; hornitzaileekiko harremanak gaztelaniaz dira, etab.

Udaleko euskararen erabilera planari jarraipena emateko batzordea ere osatu dute. Bertan teknikoei, arduradun politikoei eta Udaltzarak langileen ordezkariak hartuko dute parte.

Reala eskualdean ibiliko da gaur, Gipuzkoako ibilaldiaren baitan

Kirola » Azpeitian 18:30ean egingo dute geldialdia futbolariak, eta udaletxean harrera egingo diete

N. URANGA

Realak azkenean gaur egingo du autobusean Gipuzkoako ibilaldia. Espainiako Lehen Mailarako igoe-

ra jarraitzaileei eskertzeko egingo dute. Hasiere batean asteartean egin behar zuten, baina Eusko Jaurlaritzak ordurako alerta horia ezarri zuen euria eta haizeagatik, eta ibilaldia atzeratu egin behar izan zuten Realekoek. Gipuzkoako ibilaldiaren baitan, Urola Kosta eskualdean barrena ere ibiliko dira futbol jokalariek. Hala, Arantzazun bazkaldu eta handik bueltan, Azkoititik sartuko dira eskualdera.

Handik pasatu eta Azpeitian geldituko dira, 18:30ean. Han, udaletxean harrera egingo diete Realekoek, musika banda eta guzti.

Azpeitiko ekitaldia bukatu ondoren, Debara joango dira eta handik, berriz, Urola Kostara itzuliko dira. 20:15ean Zumaiatik pasatuko

dira, eta handik Getariara eta Zarautzerako bidea hartuko dute. Abiapuntuan, Zubietan, bukatuko dutela jakinarazi du klubak.

Gaur egun, Urola Kosta eskualdeko lau jokalaririk ari dira Realean jokatzeko: Mikel Aranburu eta Mikel Labaka azpeitiarrak, Dani Estrata zarautzarra eta Josu Esnaola oriotarra.

» GAUR REALA ESKUALDEAN

- 09:30. Realekoak Zubietatik irtenko dira. Tolosaldean eta Goierri ibili ostean, Arantzazutik bueltan helduko dira Urola Kostara.
- 18:00. Azkoitia.
- 18:30. Azpeitian geldialdia egingo dute, eta udaletxean harrera egingo diete Realekoek.
- 20:15. Zumaiak.
- 20:25. Getaria.
- 20:30. Zarautz.

Iragarki laburrak

SALGAI

■ **Etxebizitza.** Etxebizitza salgai Arroa Behean (Zestoa). Hiru logela, bainugela, egongela eta garajearekin. Telefonoa: 629-46 29 56 (arratsaldean deitu).

Gidariak behar dira dokumentazioa eta balijak banatzeko. Postu finkoak erakunde publikoetan. Lanaldi jarraia.

610-71 97 82

Lan publikoetarako zaintzaileak, igeltseroak, arotzak, argiketariak, eta mantenturako langileak behar dira. Lanpostu finkoak.

600-97 74 95

Telefonistak/harreragileak behar dira eraikin publikoetarako. Postu finkoak. Lanaldi jarraia.

607-25 42 40



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Gizarte arloko elkarteek diru-laguntza eskatzeko epea ireki du Udalak

Azpeitia » Gizarte zerbitzuetako elkarteek uztailearen 24rako egin beharko dute eskaera

N. URANGA

Gizarte zerbitzuetan lan egiten duten elkarteentzat eta garapen bidean dauden herrialdeetarako diru-laguntzak eskatzeko epea ireki du Udalak. Elkarteek uztailearen 24ra arte dute laguntza eskatzeko aukera. Baina garapen bidean dauden herrialdeetara bideratzeko laguntza eskatzeko epea urriaren 30a artekoa da.

Gizarte zerbitzuetan dauden elkarteek diru laguntza eskatzeko baldintzak hauek dira: Azpeitikoak izatea eta herrian egotea; edo, nahiz eta Azpeitian ez egon, ekimenak Azpeitian gauzatzea.

Herrialderetako eskatutako laguntzek irizpide hauek dituzte: garrario arlorako ez izatea; laguntza proiektu zehatz baterako izatea; eskaera azpeitiar batek egin beharko du; aurreko urteko diru laguntza ziurtatu behar da; eta, ahal izanez gero pertsona batek proiektu bakarra eskatuko du.

Azpeitiko EAJK Iraurgi Saskibaloia eta Ilunpe zoriondu ditu

Politika » Bi kirol elkarteek izan dituzten emaitzek herriaren «izen ona areagotzeko» balio izan dutela diote jeltzaleek

N. URANGA

Azpeitiko EAJK «zorionik beroenak» eman dizkie Iraurgi Saski Baloia Elkarteari eta Ilunpe Pilota Elkarteari lortutako emaitzengatik, «Azpeitiaren izena ona handitze» eta behar den tokian jartzeko, eta bide batez kirolak berekin dakartzan baloreak, ahalegina eta talde-lana, goratzeko balio izan baitute. «EAJren nahia kirolak azpeitiar guztion elkartze-puntu eta bat egiteko zubi izaten jarraitzea da».